

LOTSAREN ITXARONGELA

(Itxarongela bat. Zenbait aulki. Ate bi: bata kaletik datorrena da; bestea ate misteriotsua da. Ateak parez pare daude, eta aulkiak ikusleen parean. BACON, neska gaztea aulkian botata, hankak beste aulki baten gainean. Kaleko atetik ASSOLUTA sartuko da. Edadeko emakume dotorea. Buruko keinu batez elkar agurtuko dute. Isiltasuna. BACONEK ASSOLUTA goitik behera begiratuko du. ASSOLUTAK albo batera egin, amasa hartu eta adorez hitz egingo du.)

ASSOLUTA: Zu ere bai...?

BACON: Ni ere bai...?

ASSOLUTA Bai...

BACON: Zer?

ASSOLUTA: Zain?

BACON: Zeren zain?

ASSOLUTA: Zera... Zita duzu?

BACON: Zita?

ASSOLUTA: Ordua, ea ordua duzun.

BACON: Bostak pasatxo izango dira.

ASSOLUTA: Ez, bai, hori bai. Baina, zera, hitzordua, ea hitzordua duzun.

BACON: A, zita.

ASSOLUTA: Hori bada, zita! Ea zita hartu duzun.

BACON: Nik ez dut hartu.

ASSOLUTA: Orduan ni naiz aurrenekoa. Ondo! Egia esan, ohituta nago...

BACON: Aurrenekoa izatera?

ASSOLUTA: Horixe. Eta ez itxarotera, noski!

(Isilunea)

ASSOLUTA: *(Aulki batean eseriko da.)* Ba hemen gaude zain.

BACON: Itxaroten orduan! Kar-kar!

ASSOLUTA: A, ba bai, bai... *(Isilunea)* Assoluta.

BACON: Bai, nik ere pixka bat ahaztuta neukan.

ASSOLUTA: Ez, ez. Assoluta. Assoluta dut izena. Italiar doinuarekin, noski.

BACON: Ni Bacon.

ASSOLUTA: O, Francis bezala?

BACON: Ze Francis, Doctor Deseokoa?

ASSOLUTA: Ez, Bacon, Francis Bacon. Badakizu, irlandar baroi...

BACON: (*Bestea mozten*) Ez, ez naiz Bacon, Bako baizik.

ASSOLUTA: O, Baco! Greziar dibinitate dibinoa, ardoa eta...

BACON: (*Bestea mozten*) Ez, Bako, Lotsa Bako.

ASSOLUTA: A... O!

BACON: Baina nahiago Bacon esaten badidazu. Amerikar doinuarekin, noski. Kar-kar!

(*Isilunea*)

ASSOLUTA: Zerk ekarri zaitu hona?

BACON: Agindu batek. (*Isilunea*) Eta zuri?

ASSOLUTA: Mozartek.

BACON: Zure katua da...?

ASSOLUTA: (*Bestea mozten*) Mozart?

BACON: Miau! Alemaniar doinuarekin, noski.

ASSOLUTA: Wolfgang Amadeus Mozart!

BACON: Kontxo! Bizirik dago?

ASSOLUTA: Eta ni hilik. Tradimento! Sopranoen hiltzaile zekena. O, Mozart txerria! Estreinaldiaren egunean Gaueko Erregina bezala jaiki eta galtzaile izanik oheratu nintzen, gaur arte. (*Isilunea*) Horregatik etorri naiz hona.

BACON: Mozart akatzeko?

ASSOLUTA: Lotsa gaintzeko! Io sono la prima donna assoluta. Badakizu zertaz ari naizen? I am to be a prima donna.

BACON: Italiar doinuaz, noski.

ASSOLUTA: Vero, verisimo! Sopranoa naiz eta bart... O, bart! Hantxe, Gayarren, Txirula Magikoa interpretatzen, orkestra eta ikuslego osoa niri adi, aria handiaren momentua iritsi eta... O, ezin sol sostenituari eutsi. *(Negarrez)*
O! Ai! O!

BACON: Eutsi...

ASSOLUTA: Ahotsetik ihes egin zidan notak!

BACON: Aio, notario!

ASSOLUTA: Geroztik mutu geratzen naiz eszenatokira igotzen naizen bakoitzean.

BACON: *(Ikusleei konplize)* Mutu, mutu...

ASSOLUTA: Eta barregarri geratzearekin nahikoa ez, eta...

BACON: Eta?

ASSOLUTA: O, txalorik ez!

BACON: Txalorik ez?

ASSOLUTA: Txalorik ez...

BACON: Gaitzerdi.

ASSOLUTA: Gaitzerdi? Bihozgabe halakoa!

BACON: Txaloaz libratu zinen bada!

ASSOLUTA: Hori zorigaitza!

(BACONEk sekulako zaplastekoa ematen dio)

ASSOLUTA: Baina burutik eginda zaude? Lotsabakoa!

BACON: Eta zu esker txarrekoa. Horra behar zenuen txaloa.

ASSOLUTA: Bestelako txaloaz ari naiz. Ikusleek eman beharreko txaloaz. Laudorioaz!

BACON: Niretzat txalo bakarra zaplastekoa da.

ASSOLUTA: O, bravo eta txalo!

BACON: Bravo eta talo...

ASSOLUTA: Txalo eta bravo!

(Isilunea)

ASSOLUTA: Oholtza zapaltzen dugun artiston arnasa da txaloa.

BACON: Eta ez batere xaloa.

ASSOLUTA: Ikusleen txaloek elikatzen naute. Sexuak eta musikak bezala bihotzean, barrenean plas! O, ba ote txaloa baino adierazpen ederragorik mundua deritzoten honetan?

BACON: Zure txalo hori ikusleen kondena dela uste dut.

ASSOLUTA: Zer diozu?

BACON: Eskuak elkarri kolpatze hori tximinoek asmatu zutela esango nuke.

ASSOLUTA: Nahikoa dugu!

BACON: Txaloa ez da librea. Derrigorrezko keinua da antzerkian, kontzertuetan eta zuen operetan! Zaratazko zigor kolektiboa.

ASSOLUTA: Finitito! Finito! Zuk ere lotsarazi nahi nauzu, ezta? Nahikoa izan nuen Gayarreko estreinaldian. Ez nauzu barregarri utziko.

BACON: Orduan ni ere mutu eta kito.

(Isilunea.)

ASSOLUTA: *(Ate misteriotsuari seinalatuz)* Hara! Zu zara Bera, ezta?

BACON: Bera...?

ASSOLUTA: Bai, harrapatu zaitut! Zitarik ez duzula esan duzu. Aja! Atearen beste aldean egon beharrean, zure kontsultan egon beharrean, hemen zaude, itxarongelan, pazienteekin nahasita.

BACON: Bai, kar-kar, pazientziarekin nazkatuta.

ASSOLUTA: *(Lausengatuz)* Ohartu naiz. Hau bai metodo ona. Shock terapia modukoa edo, ezta? Esan, ondo ari naiz?

BACON: Orain arte txalorik jaso ez baduzu, beharbada ez...

ASSOLUTA: O, egia! *(Ikusleei zuzenduko zaie)* O, Lezoko herri: ez al dut zuen txaloa merezi?

BACON: *(Txalo txikiak joz)* Lotsaren terapia egitera etorri zara, hortaz.

ASSOLUTA: Bai.

BACON: Lotsa gainditzeko?

ASSOLUTA: Bai...

BACON: Italiar doinuarekin, noski?

ASSOLUTA: Zer!?

BACON: Kar-kar, ezer ez, barkatu, kontrolaezina zait.

ASSOLUTA: Italiar doinua?

BACON: Lotsagabekeria. Horregatik ekarri naute.

ASSOLUTA: Nola?

BACON: Ba, nik, zera, gainditu beharrean, integratu behar dut.

ASSOLUTA: Integratu?

BACON: Barneratu.

ASSOLUTA: Lotsa?

BACON: Bai, lotsa ezagutu behar omen dut.

ASSOLUTA: Ezagutu...

BACON: Esan dizut, Bako, Lotsa Bako.

ASSOLUTA: Quella fatalitá! Nik soberan daukat eta zuk faltan!

BACON: Mundua deritzoten honetan, gauzak horrelaxe daude!

ASSOLUTA: Baina, benetan? Zuk ez duzu lotsarik? Ez duzu lotsa ezagutzen?

BACON: Ba ez. Zer itxura dauka?

ASSOLUTA: Errudunaren gabardina soinean darama, ziur. Izan ere, niretzat, estreinaldi gauetik behintzat, errua bezalakoa da.

BACON: Lotsadun errudun, kar-kar!

ASSOLUTA: Ez duenak duenari ematen dio!

BACON: Jasotzeko prest dagoenak jaso omen du lotsa...

(Isilunea)

ASSOLUTA: (*Eldarnio batean bezala*) Hara, zuk niri lotsa ematen didazu lotsa, entzun?

BACON: Zer?

ASSOLUTA: Zuk ere errua duzunez gero, lotsaren beldu zara, bai. Eta baita beste guzti horiek ere bai.

BACON: Nortzuk?

ASSOLUTA: Hor parean dauden beste horiek. (*Ikusleak seinalatuko ditu*)

BACON: Zer egin dizute?

ASSOLUTA: Dena! Dena! Ze... Nork eragiten du, nork sortzen du lotsa? Nork erabakitzen du zer den lotsagarri eta zer ez?

BACON: Niri etxekoek, irakasleek eta inguruko atzerakoi guztiek.

ASSOLUTA: Hain zuzen ere. Besteek! Aurrean ditugun horiek.

BACON: Errua banatzen, orduan?

ASSOLUTA: Hara, gazte! Nik neure intimitatean ez dut sekula lotsarik sentitu. Eszenatokian, ordea, denak begira ditudala, orduan bai.

BACON: Agian niri ere gertatu izan zait...

ASSOLUTA: A bai?

BACON: Esaterako, baloiari ematen jakin izan ez dudanean, edota patioan behin laprast egin nuenean... Orduan lehengoz jakin nuen zer den txaloa.

ASSOLUTA: Lotsa, esan nahiko duzu.

BACON: Ez txaloa, denek txalo egin baitzuten ni lurrean nengoela.

ASSOLUTA: Txaloa. Eta lotsa.

BACON: Eta beharbada horregatik kendu nahi izan nuen gainetik ostera lotsa.

ASSOLUTA: Besteak lotsagarri utziz? Baloiz pozoiduna bezala.

BACON: Ez, ez! Besterik gabe, burura datorkidan edozer aske esateko. Baloia bezala jaurtitzeko edo jolasteko, ondo pasatzeko!

ASSOLUTA: Aske botatzeko diozu. Benetan, aske? Uste dut inor ez dela libre. Beste norbait guri begira dagoen bitartean ez gara sekula libre benetan. Zer esanari lotuta bizi gara, lotsari kateatuta.

BACON: Eta txaloari, ezta?

ASSOLUTA: Txikiegia da lotsa eta txaloaren arteko aldea, bai.

(Isiltasuna)

BACON: Ostras, ze lotsa!!!

ASSOLUTA: Zer?

BACON: Hemen, beste denen aurrean, nola jardun garen, barreneko hori lotsarik gabe askatzen.

ASSOLUTA: Eta txalorik jaso gabe gainera!

(Isilunea)

ASSOLUTA: Lotsa eta txaloa guda dira, antza.

BACON: Lubakiaren zein aldetan egon da kontua.

ASSOLUTA: Eta lotsa bera bezala, txaloa askatuko bagenu? Irudikatzen al duzu txalo librearen lurralde bat?

BACON: Lotsaz libre den erresuma?

ASSOLUTA: Sar dezagun Mozarten txirula magikoa ahoa ez den beste nonbaitetik!

BACON: Eta inork entzuten ez digula kantatu dezagun!

ASSOLUTA: Ooo, ez! Hori ez!

BACON: Ez?

ASSOLUTA: Ezta inola ere! Nik neure ikuslegoari kantatu nahi diot, publikoak neure artea behar du!

BACON: Baina orduan epaituko zaituzte.

ASSOLUTA: Ez, txalo egingo didate!

BACON: Harropuztuaren beharra zurea beti...

ASSOLUTA: Harroa ni! Eta zure beharra besteak irrigarri uztea! Zoaz! Hau orduan ez da zure lekua.

BACON: Horixe ez dela, esan dizut nik ez dudala Lotsarekin zita eskatu.

ASSOLUTA: Hortxe duzu lekua, beste guztiekin batera. Han behean. Eta ni hemen goian.

BACON: Behean daudenek epaitzen dute guda honetan, hortaz...

ASSOLUTA: Zoaz, eta utzi garbi espazio sakratu hau!

(BACON ikusleen artera jaitsiko da.)

ASSOLUTA: Ni naiz Gaueko Erregina... Infernuko mendekua nire bihotzean irakiten dago... eta.... *(“Der hölle rache Kocht in neimen Herzen” aria kantatuko du, barregarri.*

Ikusleen artean, beharbada, txalo egingo duen bakarra BAKON izango da.)

BACON: Egon, egon, ezin duzu eszena horretan bakarrik egon. Egin dezagun elkarrekin berriz. Kanta egidazu niri. Ni izango naiz zure Pamina.

ASSOLUTA: Dopamina?

BACON: Pamina, aldamenean behar duzun beste pertsonaia.

ASSOLUTA: O! Txirula Magikoa ezagutzen duzu!

(BACONEk labana emango dio ASSOLUTARI, operako eszenan bezala.

“Der hölle rache Kocht in neimen Herzen” aria kantatuko du berriz ASSOLUTAk. BACONEk alabarena egingo du, biak oso tragikomiko.)

ASSOLUTA: Ni natura eta zu jendartea!

BACON: Bion arteka sekulako gatazka eszenaren une gorenean.

ASSOLUTA: Bion arteko talka, eztanda!

(Isilunea)

BACON: Lotsa.

ASSOLUTA: Txalo.

BACON: Lotsa.

ASSOLUTA: Txalo.

(Elkarri labana sartuko diote. Biak lurrera ziplo. Ikusleek txalo egin arte. Ala ez. Pertsonaia biak zutiko dira eta ikusleei hitz egingo diete)

BACON: Zeri txalo?

ASSOLUTA: Lotsa zeri?

BACON: Lotsari txalo?

ASSOLUTA: Txaloari lotsa?

BACON: *(ASSOLUTA seinalatuz)* Hemen Lotsa, Txaloaren ama.

ASSOLUTA: *(BACON seinalatuz)* Hemen Txaloa, Lotsaren alaba.

(ASSOLUTAk ikusleei erreberentzia egingo die. BACON gauza bera egitera behartzen du.)

ASSOLUTA: Ez nazazu barregarri utzi denen aurrean, faborez.

(Biek erreberentzia egingo dute. Badoaz ate misteriotsura biak. ASSOLUTA aurretik aterako da)

ASSOLUTA: Ondo itxi gero atea.

BACON: Baietz ama... Ai! Beti lotsarazten nauzu...

(Badoaz.)